



EEBB: lehendakarietarako hauteskundeak

Clintonek herritarren batasuna eskatu du

Estatubatuarrek bat egin dute lehendakari berriaren aldaketarako deiarekin

Aldaketaren gizona izan eta estatubatuarren arazoei lehentasuna emateko promesarekin, Bill Clinton hautagai demokrata, 46 urterekin Estatu Batuetako lehendakari hautatu zuten herenegun. Emaizte garaipena ziurtatzen ziotenean emandako lehendabiziko diskurtsoan batasun nazionalerako deia egin zuen «gerra hotzaren amaierak dakarren etorkizunari aurre egiteko».

KOLDO ALDABE / DONOSTIA


«Gaurkoa ez da alderdi bakar baten garaipena; herriaren garaipena da» adierazi zuen ia ahotsik gabe, Little Rock Arkansaseko hiriburuan antolatutako jaian. John Lennon-en 'Power to the People' (boterea herriarentzat) abestia entzuten zen bitartean.

Jantzi beltz bat soinean eta ilea goizean baino motzago, Bill Clinton, bera goraiatzaren zuen jendetzaren aurrera irten zen adierazteko: «Denok batera lan egiten badugu, etorkizun berria lortuko dugu». Estatu Batuetako lehendakari hautatu berria George Bush lehendakariari eta Ross Perot hautagai independenteari botoa eman zietenei zuzendu zitzaizkien, berarekin eta «Alderdi Demokrata berriarekin» bat egin zezaten eskatzeko, «herriari bere etorkizuna itzultzea» lortzeko.

«Gurekin fida zintezkete. Herri honen buruzagi izateko eman didazuen erantzukizuna onartzen dut, baina zuei ere eskatzen dizuet etorkizun berri hau eskuratzeko lan egin dezazuen» gaineratu zuen Clintonek.

GIZARTE ANITZA «ENERGI ITURRI»

Lehendakari hautatu berriak adierazi zuen garaipen demokratik jendea batu eta EEBBetako gizartearen aniztasuna «energi iturri bezala» aprobetxatzeko aukera emango duela. Herritarrek —azaldu zuen— batera aurre egin beharko diete HIESari, ingurugiroaren defentsari eta industria militarra erabiltzen zibilerako aldaketari.



Clintoni esker Alderdi Demokratik Etxe Zuria berreskuratu du.

ASSOCIATED PRESS

Clintonek, Bushen zorionak emateko egin zion telefono deia eskertu zuen eta azken lau urteotan lehendakari izan den gizonaren lan estadista goraiatu, gerra hotzaren amaieran eta Golkoko gerran izandako jokabidearekin batera. Lehendakari demokrata bat etorri zen baita ere, hautagai independente gisa aurkeztu zen Ross Perotekin, eta esan zuen beharrezkoa dela sistema politikoa aldatzea, herriaren interesak presio taldearen gaintik jartzeko. «Jainkoak bedeinka dezala humanitatearen historian herriak handiena dena» amaitu zuen Clintonek.

Datorren urtarilaren 20an, bere kargua zin egiten duenean, Clinton EEBBetako lehendakari

Clinton: «Garaipen demokratik Estatu Batuetako gizartearen aniztasuna energi iturri gisa aprobetxatzeko aukera emango du».

rik gazteena izango da, 1960an John Fitzgerald Kennedy hautatu zutenetik. Arkansaseko goberadore hamabi urtez izan ondoren 50 estatuetako buruzagi izango da, herritarrei «amets amerikarra» berpiztuko duela agindu dien demokrata. Bere aldame-

nean, pertsona sendoa izango ditu. EEBBetako bigarrena Al Gore izango da, ekologi arloan lanik handien egin duen senadorea dela diotena. Alderdi Demokratiko errepublikarrena den honek Clintonen adinako esperientzia politikoa du, 44 urterekin Senatuan egon baita azken zortzi urteetan, aurretik ere beste kargu politiko batzuk izan baditu ere.

Clintonek, ordea, Bushen ez bezala, pertsonalitate handiko emaztea izango du alboan. EEBBetako lehenengo dama, «lehendakari batek behar duen bezalakoa» izango da hemendik aurrera, atzo iparramerikar askok zioten moduan. Izan ere, Hillary Clintonek EEBBetako emakume berria irudikatzen du.

AGINDUTAKO PROGRAMA

«Aldaketa», «ilusio eta indar berriak» agindu ditu Bill Clinton EEBBetako lehendakari hautatu berriak hauteskunde kanpaina hasi zenez geroztik. Alderdi Demokratik betidanik izan dituen tesi liberalerako ez du joko, ordea, EEBBetako lehendakari berriak.

ZENTROKO PROGRAMA

Demokratek argi izan dute, —konbentzioan nabarmen azaldu zuten, Jesse Jackson lider beltzak barne— ezer aldatzen hasteko lehendabizi irabazi egin behar zirela hauteskundeak, eta horretarako ezinbesteko zela zentroko programa eskaintzea, moderatua. Clintonek aldaketa hori bultzatu nahi izan du. Gutxiengo beltz eta hispanoak ezezik, EEBBetako gehiengo osoa izan duten maila ertaina eta langile liberalak ere biltzeko moduko programa moderaturako aldaketa.

EKONOMIA

«Nire lehenengo egunetan gauzak alda daitezkeela erakutsiko dut», esan zuen Clintonek bozketa aurretik egindako azkenetako adierazpenetan. Horretarako, aldaketak lehenbailehen eragin nahi dituen programa ekonomikoa aurkeztuko du Kongresuan. Ekonomiari odol berria sartzea da helburu nagusia, berrindartzen has dadin. Kapitalaren irabazien gaineko zergak gutxitu egingo dituela esan du Clintonek, eta gehiago lagunduko dutela enpresari inbertsioa.

Ekonomi arloan aldaketa agindu du behin eta berriz Clintonek, eta aldaketa honek maila ertaina lagundu nahi du. Aberatsenei zergak handitzeko asmoa du Clintonek, eta, halaber, gizarte laguntzak gehitzea. Gizarte laguntzak bi urtera mugatuko dituela esan du, hala ere, Clintonek.

NAZIOARTEA

Nazioarteko politikan ez du aldaketa nabarmenik iragarri Clintonek. Bushen politika jarraituko duela esan du, baina giza eskubideen alde gogorrago egingo duela adierazi du.

EUROPA

Balkanetako gerrari eusteko ahalegin handiagoa agindu du Clintonek, baina Europar EEBBen indar militarrik murriztu egingo dituztela ere esan du. EK gehien kezkatzen duen kontua, ordea, ekonomia da. EEBBen ekonomia ahulari aurre egiteko produktu amerikarrak babesteko neurriak agindu ditu Clintonek, eta horrek kaltea ekarriko die Europakoei. Gerra komertziala ere izan daiteke hilaletan.

HIZKETARAKO ARAZOAK BADITUZU,
ZATOZ BERBARA

LOGOPEDIA GABINETEA

Astelehen, asteazken eta ostiralean Setatik 8tara

Manuel Allende 23, 1-A
Tf.: (94) 4100292 BILBO